

BESTELAKO XEDAPENAK

GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4489

EBAZPENA, 2022ko urriaren 7koa, Lan Harremanen zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialaren Akordioa, EAEko Espetxe Administrazioan lekualdatze-lehiaketaren bidez destinoa lortu duten funtzionarioei aplikatu beharreko lan-baldintzei buruzkoa.

2022ko irailaren 20ko batzarrean, Gobernu Kontseiluak erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialaren Akordioa onartzea, EAEko Espetxe Administrazioan lekualdatze-lehiaketaren bidez destinoa lortu duten funtzionarioei aplikatu beharreko lan-baldintzei buruzkoa. Hori horrela, behar bezalako publikotasuna izan dezan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialaren Akordioaren testua, EAEko Espetxe Administrazioan lekualdatze-lehiaketaren bidez destinoa lortu duten funtzionarioei aplikatu beharreko lan-baldintzei buruzkoa (honen eranskinean dago jasota).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 7a.

Lan Harremanen zuzendaria,
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.

ERANSKINA, LAN HARREMANEN ZUZENDARIAREN 2022KO URRIAREN 7KO EBAZPENARENA

AKORDIOA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO MAHAI SEKTORIALARENA, LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN BIDEZ DESTINOA LORTU DUTEN FUNTZIONARIOEI APLIKATU BEHARREKO LAN-BALDINTZEI BURUZKOA

2021eko urriaren 1ean, EAEko espetxeetan zerbitzuak ematen dituzten langileak EAera eskualdatzeko transferentzia gauzatu zen.

Hori baino lehen, 2021eko irailaren 1ean, abuztuaren 5eko Ebazpena argitaratu zen, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiko zerbitzu periferikoetan lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorrerako deialdia egiten zuena, zeinak haxe ezarri baitzuen lehenengo oinarrian:

1.– Lehiaketa honetan Espetxeetako Laguntzaileen Kidegoko eta Espetxeetako Kidego Bereziko karrerako funtzionarioek hartu ahal izango dute parte, destinoagatik edo administrazio-egoeragatik inolako mugarik izan gabe.

Nahiz eta hasiera batean EAEko espetxeei atxikitako lanpostuetatik bost bakarrik sartu ziren deialdian, azkenean, prozesuaren ondorioz, gehiago izan ziren lanpostuak.

Era berean, aipatutako lehenengo oinarriaren 6. puntuan jasotzen da zer baldintzatan parte hartuko duten EAera transferitutako funtzionarioek eta Estatuko beste edozein espetxetan lanpostuen titular direnek.

«Ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuaren ondorioz (espetxe-arloko estatu-legeak beteazterazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa da errege-dekretua), lehiaketa honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako espetxeetan (Araba, Bilbo edo Donostia) plaza lortzen duten espetxeetako funtzionarioak, behin plazaren jabetza hartzen dutenean, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan dauden funtzionariotzat joko dira Estatuko Administrazio Orokorrean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen du) 88. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta erabat integratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko antolakuntzan, non zerbitzu aktiboko egoeran egongo diren.

Egun Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario direnek, aipatutako ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuarekin bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkionak 2021eko urriaren 1etik aurrera, lehiaketa honen bidez esleitu dakiekeen plaza beteko dute, hala xedatzen baitu espetxe-arloko estatu-legeak beteazterazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzko 2021eko maiatzaren 10eko Erabakiaren 6. erabaki osagarriak».

Espetxe Administrazioa EAEko Administrazio Orokorraren barruan egongo denez, haren lan-baldintzak EAEko Administrazio Orokorraren Mahai Sektorialean negoziatu behar dira. Hala ere, haren baldintza espezifikoak arautu behar direla kontuan hartuta, 2021eko irailaren 27an Mahai Sektorialaren mahai delegatu bat eratu zen, aipatutako baldintzak bertan negoziatzeko; nolahi ere, haren jarduerak Mahai Sektorialaren onespina izan beharko du, baliozkoa eta aplikatzekoa izateko.

Eskualdaketa eraginkor egin zen unean adierazi bezala, prozesu iragankor bat jarri zen abian, langileak EAEko kidego eta eskaletan integratzean amaituko dena, behin lanpostuen zerrenda onartuta.

Prozesuaren konplexutasuna nabarmena izan da denbora honetan guztian, eta are gehiago azaroaren 11ko 7/2021 Legea argitaratu zenetik (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoei eta eskalei buruzkoa), lege horrek antolamendu berri bat ezartzen baitu, eta bertan kokatu behar baitira zigor betearazpeneko zentroetan zerbitzuak ematen dituzten langileak.

Horrenbestez, araudia ezarri behar da, aipatutako lehiaketaren ebazpenaren ondorioz zentro horietan behin betiko destinoa lortu duten langileen lan-baldintzak arautuko dituen prozesu iraunkorra amaitu arte.

AKORDIOA

Lehenengoa.– Aplikatu behar den araudia.

2022ko otsailaren 24an EAEn lanpostu baten esleipendun izan diren karrerako funtzionarioen lan-baldintzei arau hauek aplikatuko zaizkie, akordio honetan arautu ez diren alderdiei dagokienez:

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, eta hura garatzeko araudia, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan langileen kudeaketaren arloan onetsitako gainerako araudia ere.

Eta, zehazki, 83/2010 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko dena, eta 2022ko urtarrilaren 28ko Zirkularra, Lan Harremanen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratadunen lanaldiei eta ordutegiari buruzkoa.

Bigarrena.– Lanaldia eta ordutegiak.

Urteko lanaldia EAEn oro har ezarritakoa izango da; beraz, 1.592 ordukoa.

Bulegoetako ordutegia duten langileek, akordio hau sinatu eta hurrengo 15 egunetan, EAeko Administrazio Orokorreko 2022rako lanaldi eta ordutegien Zirkularrean ezarritako lanaldietako zein aukeratu duten adierazi beharko dute. Adierazten ez badute, B lanaldi zatitua aplikatuko zaie.

Langileek baimen-egun libreak hartu ahal izango dituzte, urteko lanaldia betetakoan sobera geratutako ordu kopuruaren trukean.

Gainerako langileak, asteko egun guztietan goizeko/arratsaldeko/gaueko edota goizeko/arratsaldeko txandak egin behar dituztenez, zentro bakoitzean indarrean dagoen talde batean sartuko dira; beraz, horietako bakoitzean adostutako kadentziak egingo dira, Arabako espetxean 2022ko ekainaren 30era arte indarrean dagoen COVID kadentzia barne.

2022ko otsailaren 23an, hauek ziren kadentziak:

Araba.

V1: 1. eguna, Go/A; 2. eguna, Go/A/Ga; 3. eguna, libre; 4. eguna, libre; 5. eguna, libre; 6. eguna, libre; 7. eguna, libre; 8. eguna, libre.

Bizkaia eta Gipuzkoa.

V1: 1. eguna, A; 2. eguna, Go/A; 3. eguna, Go/Ga; 4. eguna, libre; 5. eguna, libre; 6. eguna, libre; 7. eguna, libre; 8. eguna, libre.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

V2: 1. eguna, Go/A; 2. eguna, Go/A; 3. eguna, libre; 4. eguna, libre; 5. eguna, libre; 6. eguna, libre.

Hirugarrena.– Oporrak eta baimenak.

Akordio honetan barne hartutako enplegatu publikoek EAeko Administrazio Orokorraren zerbitzura diharduten funtzionarioen lan-baldintzei buruzko 83/2010 Dekretuan eta Lan Harremanen zuzendariaren 2022ko urtarrilaren 28ko Zirkularrean, zeina lanaldiari eta ordutegiei buruzkoa baita, aurreikusitako baimenak baliatu ahal izango dituzte.

Barne-zaintzako langileei aplikatzeko arauak:

A) Oporrak.

Arau orokor gisa, behin zerbitzua emango dela bermatu ondoren, barne-zaintzako (1) langileek, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, gutxienez bost lanaldi jarraitu (kadentzia bat) izango dituzte bakoitzean, edota, funtzionarioen artean adostasuna egonez gero, gehienez ere hamar lanaldi jarraitu hartu ahal izango dituzte (bi kadentzia). Gainerako bi egunak, bosten multiploak ez direnak, norberaren eginkizunetarako baimen-egunetarako adierazitako modu berean hartuko dira.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, ukitutako funtzionarioen aurretiazko erabaki espresua egonez gero, opor-egun gehigarriak baimendu ahal izango dira, betiere bosten multiploak badira.

Barne-zaintzako (2) langileentzat, maiatzaren 15etik urriaren 15era, bost hilabeteetako bakoitzean gutxienez lau lanaldi jarraitu izatea bermatuko da, edota, funtzionarioen arteko adostasuna egonez gero, arau orokor gisa, gehienez hamabi lanaldi. Egun gehigarriak ere hartu ahal izango dituzte, betiere lauren multiploak badira eta barne-zaintzako (1) langileen baldintza eta muga berberak izanik.

B) Baimenak.

Egun natural batean lanaldi bat baino gehiago egiten duten langileei baimenak emateko orduan, oro har, egun bat aplikatuko zaie jarraian egindako edo atsedeen-txandak bereizitako lan-txanda bakoitzeko. EPOELTBren 48. eta 49. artikuluetan jasotako baimenen inguruan interpretazio-zalantzarik sortuz gero, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak lanaldiei eta ordutegiei buruz emandako 7/2019 Instrukzioaren 13.7 apartatuan xedatutakoa beteko da.

Aldi baterako, lanpostuen zerrenda onartu arte, eta betiere horren emaitza baldintzatu gabe, barne-zaintzako langileei 7/2019 Instrukzioaren 14. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie, beren jarduera garatzen duten ordutegi bereziaren konpentsazio gisa.

Laugarrena.– Ordainsariak.

1.– Lanpostuen zerrenda onartzearekin batera amaituko den aldi iragankorrean, 2022ko otsailaren 24an sartutako langileek 18 VI C gutxienerako ordainsari-maila jasoko dute (16. maila, analisi funtzionalen arabera baloratu ez diren lanpostuetarako ordainsari-taulan), bai eta osagarri pertsonal bat ere, hala badagokie, Estatuko Espetxe Administrazioak 2021eko irailaren 1ean argitaratutako lekualdatze-lehiaketaren deialdian islatutako ordainsarietara arteko aldeगतिक (destino-osagarria eta berariazko osagarria). Kontzeptu eta zenbateko horiek behin-behinekoak izango dira, lanpostuen zerrenda onartzean zehaztuko baitira behin betiko ordainsariak. Aipaturiko lanpostuen zerrenda onartu ondoren, eta hala badagokio, egokitu egingo dira ukitutako langileen

ordainsariak, 2022ko otsailaren 24ra arteko atzeraeraginarekin, lehiaketaren bidez lortutako lanpostua betetzen duten egunera arte.

2.– Gutxieneko maila aitortzeak ez ditu, inola ere, lanpostuen balorazioaren emaitzak baldintzatu, balorazio hori egitean lanpostu bakoitzean benetan gauzatutako eginkizun eta zereginak soilik hartuko baitira kontuan.

3.– Ordainsariak behin betiko zehazteak ez du ekarriko lanpostuen zerrenda argitaratu arte sortutako eta ordaindutako zenbatekoak itzultzea.

4.– Osagarri pertsonal iragankorra, ordaintzekotan, iraungi egingo da lanpostutik borondatez mugitzean.

Lanpostuen zerrenda onartu bitartean, betetako lanpostu berriari 18 VI C gutxieneko ordainsari-maila jasoko da (16. maila, analisi funtzionalen arabera baloratu gabeko lanpostuetarako ordainsari-taulan), bai eta osagarri pertsonal bat ere, hala badagokio, lanpostu bakoitzari dagozkion ordainsarietara arteko aldeagatik (destino-osagarria eta berariazko osagarria), uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri (dekretu horren bidez, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia onartzen da, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa).

Lanpostuen zerrenda onartu bitartean, barne-zaintzako lanpostuetan zerbitzuak ematen dituzten langileei urteko hamalau jaiegunetan zerbitzua emateagatiko konpentsazio ekonomikoak arautzen dituen araudia aplikatuko zaie, bai eta lanaldia luzatzeagatiko ordainsaria jasotzen duen araudia ere, Espetxeen Erregelamenduaren 286. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.– Mugiezintasuna.

Eskualdatutako enplegatu publikoek, EAEko egitura korporatiboan integratzen ez diren bitartean, eskualdaketa unean betetzen zitezten lanpostuei esleituta jarraituko dute, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat.

Ordezkaritza sindikalarekin 2022ko martxoaren 22an sinatutako Akordioan xedatutakoaren arabera, ukitutako langileek parte hartu ahal izango dute bertan araututako mugikortasun-prozesuetan.